# [Eusk/Cast] Fracking EZ secunda la protesta a celebrar el sábado ante la sede de SHESA en Bilbo

FRACKING EZ :: 17/11/2015

Denunciarán cómo la empresa del Gobierno Vasco, a escasos meses de aprobarse la ley antifracking, avanza en sus planes de aplicar la fractura hidráulica en las Merindades

***[Euskara]***

**FRACKING EZ-ek bat egin du larunbatean Bilbon SHESAren egoitzaren aurrean Burgos-eko gizarte ekimenak deitutako protestaldiarekin**

Elkarretaratzeak salatuko du Eusko Jaurlaritzaren enpresak, fracking-aren aurkako legea onartu eta gutxira, lanean
darraiela haustura hidraulikoa Merindades-en aplikatzeko 2015eko azaroak

17. Euskal Herriko fracking-aren aurkako gizarte mugimenduak bat egin du datorren larunbatean Asamblea contra el fracking de las Merindades-Norte de Burgos-ek deituta Bilbon egingo den protestaldiarekin.Eguerdiko 12:00an hasiko da, Eusko Jaurlaritzaren enpresa den Euskadiko Hidrokarburoen Sozietate Anonimoak (SHESA) Bizkaia Plazan duen egoitzaren aurrean.

FRACKING EZ bat dator mobilizapena arrazoitzerakoan agertutako zioekin, eta, ildo horretan,
dei egin dio Euskal Herriko gizarteari elkarretaratzera bil dadin, gaur egungo egoera zinez larria dela gogoan hartuta.

Izan ere, alde batera, deitzaileek nabarmendu dute norainoko arriskua legokeen baldin eta SHESAk Merindades inguruan duen Angosto-A izeneko baimena gauzatuko balu; beste ondorio
batzuen artean, Ordunteko Urtegiaren edo Kadagua eta Ebro ibaien uren gainean isurketa toxikatzaileak gerta litezkeela ekarri dute gogora.

Horrez gain, fracking-aren aurkako euskal mugimenduak uste du urrats bat aurrera emateko
garaia heldu dela, Eusko Jaurlaritzaren jokabidea jendaurrean salatze aldera. Izan ere, Lakuak, Eusko Legebiltzarrak fracking-aren aurkako legea onartu zuenetik hilabete gutxi batzuk igaro direlarik, ezikusiarena egin die legearen funtsezko filosofiari ezezik testua onartzera eraman zuten 100.000 pertsonatik gorakoen sostenguari ere.

FRACKING EZ taldearen irudiko, Eusko Jaurlaritzak datorren urteko aurrekontuan fracking-

a
sustatzeko alorrei begira 6 milioi euroko diru-atala aurreikusi, edota, hemen ezertxo ere gertatu ez balitz bezala jokatu eta Burgos-en haustura hidraulikoa erabiltzeko prestatzea onartuezinezko iruzurra izango litzateke, legea ahalbideratu zuen gehiengo sozial eta politiko
zabalari egindakoa, hain juxtu ere.

Hau guztiau dela eta, larunbateko protestaldian parte hartuko du, honoko lelo honek gaur egun inoiz baino zentzu gehiago duelakoan: Ez Hemen, Ez Inon.

---

***[Castellano]***

FRACKING EZ secunda la protesta a celebrar el sábado ante la sede de SHESA en Bilbo, convocada por el movimiento social de Burgos

La concentración denunciará cómo la empresa del Gobierno
Vasco, a escasos meses de aprobarse la ley antifracking, avanza
en sus planes de aplicar la fractura hidráulica en las Merindades

17 de noviembre de 2015. El movimiento social antifracking vasco estará presente el sábado en la protesta que ha sido convocada en Bilbo por la Asamblea contra el fracking de las Merindades-Norte de Burgos. La cita es a las 12:00 del mediodía, delante de la sede que la empresa del Gobierno Vasco Hidrocarburos de Euskadi Sociedad Anónima (SHESA) tiene en la
Plaza Bizkaia.

FRACKING EZ secunda la convocatoria al compartir las razones esgrimidas para la misma y realiza además un llamamiento a la sociedad vasca a fin de que acuda a la protesta, habida cuenta de la más que preocupante situación actual.

Así, por un lado, los convocantes recuerdan el cóctel de riesgo que comportaría el permiso Angosto-A que SHESA proyecta en la zona de las Merindades; alerta, entre otras cosas, de eventuales consecuencias por filtraciones contaminantes en las aguas del Pantano de Ordunte, del río Cadagua y del Ebro.

Igualmente, los grupos antifracking vascos consideran que ha llegado la hora de dar un paso al
frente y activarse con objeto de denunciar públicamente que el Gobierno Vasco, sin dejar pasar más que unos meses desde la aprobación en el Parlamento Vasco de la ley

antifracking,
desoye la filosofía de fondo de la misma y el mandato de la sociedad vasca, incluido el de las más de 100.000 personas que con su firma y apoyo vehicularon el proceso.

FRACKING EZ cree que es una burla inaceptable a la amplia mayoría social y política que impulsó la ley que el ejecutivo de Lakua destine 6 millones de euros al capítulo relativo al fracking en el proyecto de presupuestos para el año próximo, y que, por lo demás, se prepare
para perforar en Burgos como si aquí nada hubiera pasado.

Por todo ello, tomará parte en la movilización del sábado, en la convicción de que en estos momentos cobra más sentido que nunca el lema: Ez Hemen, Ez Inon.

---

*https://eh.lahaine.org/eusk-cast-fracking-ez-secunda*